

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/2014 ikasturtea**

# **ANIMALIEN BITARTEZKO ESKU HARTZEA ESKOLAN**



**Egilea:** Izaro Gonzalez de Ibarra Uriarte

**Zuzendaria:** Laura del Castillo Prieto

**Leioan, 2014ko Ekainaren 3an**

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	5
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala .....	6
2. Metodologia .....	11
3. Esku hartzea .....	13
3.1. Diseinua .....	13
3.2. Inplementazioa .....	16
3.2.1. Beroketa .....	16
Ipuina .....	16
Balooren marrazkiak margotzen .....	17
Gela apaintzen .....	17
3.2.2. Saioak .....	17
3.2.3. Esperientzia amaitzen .....	18
Marrazki librea .....	17
Material didaktikoak .....	18
Puzlea .....	18
Bideoa .....	18
3.3. Ebaluazioa .....	19
Mikelen gelan .....	18
Ibanen gelan .....	20
4. Ondorioak .....	23
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	25

## ERANSKINAK

1. eranskina. Elkarrizketa mota bat .....	29
2. eranskina. LAUANKA .....	30
3. eranskina. Animalien Bitartezko Terapia ABT .....	32
4. eranskina. Ikastetxearen baimena .....	33
5. eranskina. Gurasoen baimenak .....	36
6. eranskina. Ipuina .....	39
7. eranskina. Ipuinaren kontakizuna .....	43

8. eranskina. Balooen marrazkia margotzen .....	45
9. eranskina. Gela apaintzen .....	46
10. eranskina. Baloori ongi etorria ematen .....	48
11. eranskina. Baloo elikatzen .....	49
12. eranskina. Zaintzak. Orrazketa .....	50
13. eranskina. Doako goxotasuna .....	52
14. eranskina. Ukipena, konfiantza, ziurtasuna .....	53
15. eranskina. Beldurrak gainditzen (sekuentzia fotografikoa) .....	54
16. eranskina. Adiskidetasunaren konplizitatea .....	58
17. eranskina. Puzzlea .....	59
18. eranskina. Guztiok bat gara .....	60
19. eranskina. Maitasuna .....	61
ESKERRAK .....	62

## ANIMALIEN BITARTEZKO ESKU HARTZEA ESKOLAN

Izaro Gonzalez de Ibarra Uriarte

UPV/EHU

Gaur egungo umeak naturatik urrun eta deskonektatuta bizi dira eta honek izakionganako ondorioak dakartza. Hezkuntza sistema eta mundu natural errearen arteko lotura eza honen eraginez sortutako emozio desorekak ezagututa, natura eskola eremura gerturatzea erabaki nuen. Balooren laguntzarekin Animalien Bitartezko esku hartze batzuk bizi izan genituen eskolako bi urteko gelan. Txakurraren bitartez umeak emozioak azaleratzearen momentu preziatu bat izan zuten, non errespetua, konfiantza, ziurtasuna, maitasuna eta empatia moduko kontzeptuak garatu zituzten. Esperientzia hau bizi izandako guztiontzat aberasgarria izan zen arren, onartu beharra dago behar bereziak dituzten umeen arteko bizipenak benetan harrigarriak izan zirela.

*Haur hezkuntza, elkarreragina, emozioak, espektro autista, Animalien bitartezko terapia*

Los niños de hoy en día viven alejados y desconectados del mundo natural y esto acarrea consecuencias directas en el equilibrio emocional de éstos. Observando estos desequilibrios emocionales que vivimos en la sociedad de hoy en día, y en especial en el sistema educativo actual, decidí acercar la naturaleza al ámbito educativo. A través de Baloo, un perro de Terapia Asistida con Animales, los niños y niñas de dos años de la escuela tuvieron la oportunidad de expresar y exteriorizar libremente sus emociones en un ambiente muy cuidado. En estas intervenciones los niños tuvieron también la oportunidad de desarrollar conceptos como el respeto, la confianza, la seguridad, el amor y la empatía. Esta experiencia fue enriquecedora y beneficiosa para todos los que la vivimos, pero las vivencias de los niños y niñas con necesidades especiales fueron espectaculares.

*Educación infantil, interacción, emociones, espectro autista, Terapia Asistida por Animales*

Children live far away and disconnected from Nature and this brings some consequences in children's emotional balance. Concerning this situation, I decided to design an intervention and made an Animal Assisted Therapy in the school. I had the chance to bring Baloo, a therapy-dog, to the school and this was a valued moment for children to externalize their emotions. Apart from these emotions, they had the chance to improve terms like respect, confidence, safety, love and empathy. It was a great experience for everybody, but especially for those children with special needs.

*Infant education, interaction, emotions, autism, Animal Assisted Therapy*

## **Sarrera**

Gradu Amaierako lan honetan esku hartze berritzaile bat prestatu dut, eta baita aurrera eramane ere, Deustuko Ikastolako bi urteko gelan.

Lan honekin umeei ikastolan txakur batekin bizi izandako saio-terapia batzuen bizipen eta ondorioak azaldu nahi ditut.

Umeen emozioekin guztiz loturik dagoen esku hartze berritzailea da hau. Horretarako, lehenengo eta behin, umeen beharrak behatu eta gero jarduera ezberdinak prestatu nituen. Esku hartze hauek txakurraren bitartezko jarduera saio ezberdinetan bizi izan ziren.

Gaur egungo hezkuntza eta, baita gizartea ikusita ere, pertsonak natura sentitu gabe bizi garela uste dut. Hezkuntza mailan, umeei eguneko ordu gehienak espazio itxietan igarotzen dituzte. Horrez gain, gure hezkuntza sisteman, ez dira oso ugariak naturarekin harremanetan egoteko aukerak. Beraz, naturak gudan dituen onurak ikusita, natura bera ikasgela batera gerturatzea erabaki nuen. Horretarako, Baloo ikasgelara ekarri nuen. Baloo Animalien Bitartezko Terapia ABT elkarte batean lan egiten duen txakur bat da; LAUANKA deiturikoa, hain zuzen ere. Txakur honen bidez, umeei bizipen eta esperientzia pertsonal onuragarri eta aberasgarriak bizi ahal izango zituzten.

Lan hau marko teoriko batekin hasten da, non elkarreraginaren bitartez, umeei esperientzia positiboak izatearen garrantzia azaltzen den. Ondoren, marko praktikoa azalduko da, non umeen behaketaren bidez lortutako emaitzak azalduko dira. Emaitza hauekin argi ikusiko dira zeintzuk diren haur hauen beharrak eta hauetatik abiatuta, lanaren helburuak finkatuko dira. Helburu hauek kontuan hartuz, esku hartzea diseinatuko da eta baita inplementatu ere. Esku hartzea bukatzeko bizi izandakoa ebaluatuko da eta azkenik, GALaren esperientziaren ondorioak islatuta geratuko dira.

Badakigu batzuetan irudi batek milaka hitzek baino hobeto azaldu dezakeela esperientzia bat. Beraz, lan honen eranskinetan dauden argazkiek balio handia izango dute bizi izandakoa islatzeko.

Proposamen honen bitartez, umeen emozioen inguruko bidai interesgarri bat bizi izango dugu.

## 1. Esparru teoriko eta kontzeptuala

Freirek (2011:12) “pedagogia berdea” terminoari buruz hitz egiten du, umea hazi bat bezala ikusten den hezkuntzari buruz aritzeko. Filosofia honen arabera, gizakiak haziak bezalakoak gara, eta pertsona bakoitzak bere baitan garatzeko behar dituen gaitasun eta ezaugarri guztiak ditu.



1. irudia. “Pedagogia berdea”-k haurra hazi bat bezala begizatzen du.

Maria Montessoriren arabera umearen barruko indar natural hauek errespetatu behar dira, berezko instintu hauek izango baitira haurraren hazkuntza gidatuko dutenak (Wild, 2011:40). Prozesu hauetan haurrak ingurugiro egoki, lasai eta zaindua behar du, beti laguntza kontziente batekin. Gainera, umearen etengabeko garapen pertsonal hau barrukoa eta kanpokoa izan behar dela baieztatzen du Rebeca Wildek ondorengo esaldian; “Una escuela que permita el desarrollo armónico de lo interior y lo exterior” (Wild, 2011:39). Gauza da egungo gizartean pertsonok naturarekiko harremana ia galdu dugula eta, Freireren ustez, gaur egun, atxiloketa teknologikoa, etxekoa eta eskolarra bizi dugu. Mundu natural errealekiko kontaktu hau beharrezkoa da pertsona bat bere dimentsio guztietan (korporala, emozionala, soziala, intelektuala eta baita espirituala ere) hazi ahal izateko (Freire, 2011:12). Gizarte aurreratuetako umeak ikusita, naturarekin kontaktuan egotearen gabezia dutela argi ikusten da eta, Freireren arabera, gizakiok gure baitan mundu naturalarekin kontaktuan egotearen berezko beharra daukagu. Horregatik, Richard Louvek (2005), “Natura Galeragatiko Asaldura”<sup>1</sup> kontzeptua definitu du. Asaldura honen arazoia inguru naturalaren kontaktuaren gabezia da. Louveren asmoa ez da termino hau diagnostiko modura erabiltzea, baizik eta gaur egungo umeek dituzten zenbait arazoenganako hipotesiak egin ahal izatea. Gaur egun hainbestetan entzuten dugun Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura (AGHA), aditu askoren ustez, haurraren burmuineko hainbat morfologia urritasunekin erlazionatuta dagoen alterazio organiko bat da. Horrelako kasuak askotan espazio txikietan, naturatik urrun eta telebistaren aurrean denbora gehiegi pasatzen duten umeen artean konfirmatu dira. Horregatik, horrelako egoeretan, Freireren (2011)

<sup>1</sup> Natura Galeragatiko Asaldura: “Conjunto de dolencias como la depresión, el estrés, el Déficit de Atención por Hiperactividad o la ansiedad, cuya causa común podría ser la falta de contacto con el medio natural” (Freire, 2011:26).

ustez, naturarekin erlazionatutako kontaktu, ekintza eta terapiak oso ondo funtzionatzen dute.

Adituek azaltzen dituzten ekarpen hauekin naturaren onurak argi bistan geratzen dira. Beraz, lan hau animalien bitartezko esku hartzeen onuretan zentratuko da eta guzti hau elkarreraginaren markoaren barnean. Elkarreraginari buruz hitz egiten denean ezin da Vigotsky ahaztu, hain zuzen ere bera izan zelako elkarreraginaren garrantzia azpimarratu zuen lehenetarikoa. Ezagutzen antolakuntza modu indibidualistan ulertzen zutenen ikuspegiarekin (Piaget besteak beste) apurto eta elkarrekiko eraginetan eta jardueran oinarritutako bidea ireki zuen (Vygotsky, 1979). Bere ustez, pertsonak bere ahalmen psikologikoak beste kideekiko harremanetan eta horiei esker garatuko ditu. Eta beste kideei buruz aritzen denean naturan topa daitezen izaki bizidun guztien elkarreraginari buruz ere ari gara. Ildo horretatik ikertzailearen ustez eskola elkarreraginaren inguruan antolatzen da, pertsonaren garapen psikologikorako hezkuntza ezinbesteko baldintza izanik.

Historian zehar animaliek garrantzi handia izan dute bai ontologia, osasun zein hezkuntza mailan. Finek (2003) dioenez, ilustrazio garaian, zenbait adituk abereek umeekin eta gaixoekin izan zitezkeen funtzio sozializatzaileei buruz hitz egiten hasi ziren. XIX. mendean animaliak zenbait instituzio ezberdinetan sartzen hasi ziren eta hauek animalien bitartezko terapien lehen pausuak izan ziren. Dena den, Fineren (2003) esanetan, XX. mendeko lehen urteetako garapen zientifikoa dela eta, animalien alde terapeutiko hau alde batera utzi zen. Baina B. M. Levinson psikologoak 60ko eta 70eko hamarkadetan animalien balio terapeutiko hau berreskuratu, dokumentatu eta balioztatzen hasi zenean gauzak aldatzen hasi ziren (Fine, 2003:136). Orduetik aurrera esperientzia hauei “Animalien bitartezko terapia”<sup>2</sup> izena eman zieten. Deskribatutako aurrerapausoak eta gai honi buruz bizi izandakoa ikusita, gaur egun, animaliek pertsonengan dituzten onurak probatuta daude (Burch, 1995). Egindako proba hauek direla eta, animaliak osasun eta hezkuntza esparruan sartzen hasiak dira. Fineren (2003:252) arabera, animalien bitartezko terapiak, eskola eremuetan eta bereziki desoreka emozionalak dituzten umeekin, gero eta garrantzi handiagoa jasotzen ari diren

---

<sup>2</sup> Animalien Bitartezko Terapia: “La terapia asistida con animales es una modalidad de tratamiento terapéutico en que un animal que cumple determinados criterios forma parte integral del proceso. Su propósito es el de fomentar la mejoría en el funcionamiento físico, social, emocional y/o cognitivo de los seres humanos” (Tucker, 2004:95).

esku hartzeak dira. Txakurra da animalien bitartezko terapia hauetan gehien erabilitako animalia (Fine, 2003:243).

Animaliek onura fisiko, mental nahiz espiritual ezberdinak transmititzen dituzte pertsonengan. Orrialde hauetan animaliak umeengan dituzten onurak aztertuko dira, baina baita honek hezkuntza sisteman izan dezakeen eragina ere.

Txakurraren bitartezko esku hartzeen helburuetariko bat umeek bizipen emozionalen berri izatea da. Bizipen ezberdin ugari izateak umeak aberastu egingo ditu. Palouk esaten duen bezala “las vivencias emocionales son el motor de nuestra vida, y en consecuencia, también deberían serlo de la educación” (2004:25). Hezkuntzaren helburu nagusienetako bat pertsona integralak izatea ahalbidetzen duen garapen bat eskaintzea da. Eta honek zerikusi zuzena dauka orain arte azaldutako animalien bitartezko esku hartzeekin. Horregatik, naturaren bitartez emozioetan hezteak umeen hazkuntza emozionala garatzen lagun dezake. Palouk (2004:25) esaten duen bezala hazkuntza eta adimen emozional autonomo eta orekatu hau da hezkuntza mailan potentziatu behar dena.

Hazkuntza prozesuan emozioek garrantzi handia dute, eta Palouk (2004) umeek onarpenaren beharra dutela argi ikusten du. Izaki sozialak gara eta maitatuak sentitzeko besteen onarpena beharrezkoa dugu. Onarpen honek garrantzitsu, pozik, aintzat hartuta eta osasuntsu sentiarazten gaitu. Animaliek epaiketarik gabe onartzen gaituzte, gu geu garen bezala, eta Ruckerten (1994) ustez, onarpen hau guztiz aproposa da umeen garapen eta ongizaterako. Finek (2003:218) haur bat txakur lasai eta orekatu batekin dagoenean baliotsu, ondo eta garrantzitsu sentitu daitekeela esaten du, eta baldintzarik gabeko onarpen honek bere garapen pertsonalean asko lagun diezaikeela.

Ruckertek (1994:19) baieztatzen duen bezala, animalia terapeuta izateko jaioa da. Bere presentzia hutsa, kontaktuaren ahalmena eta bere eskaera errazen eraginez, gaur egungo munduan falta den ziurtasun emozionala eskaini ahal dizkio haurrari. Gainera, Ruckertek azaltzen duen bezala, animalia orekatuak berotasun, ziurtasun eta baldintzarik gabeko maitasuna eskaintzen duten iturriak dira. Horrela animalia bitartez beraien garapenerako hain beharrezkoak duten euskarria, sostengua, maitasuna eta babesa jaso dezakete. Baldintzarik gabeko maitasun hau hezkuntza prozesurako hain garrantzitsua den oinarrietako bat da. Horregatik, haren iritzi, umeek guzti hau berotasuna eta ziurtasuna jariatzen duen gorputz bizi batetik jaso dezakete. Ruckerten



hitzek islatzen duten bezala “la presencia del animal ayuda a definir, de una forma totalmente instintiva, lo que cada persona siente y necesita para su bienestar emocional” (1994:16). Ongizate emozional hau da txakurraren esperientzia hauekin bilatzen ari garena. Gainera, Fineren ustez (2003:217), txakur batek izan dezaken sentsibilitatearen eraginez, umeek enpatia ere garatu dezakete. Haren (2003:218) esanetan, txakurra haurraren konfiantzako lagun bihurtzen da eta honek sostengu puntu garrantzitsua eman diezaioke umeari, bere sentimenduak azalertzeko. Sostengu puntu honi buruz hitz egitean Bruneren (1998) aldamioren kontzeptua aipatzea ere interesgarria da. Aldamioa, haurraren banako gaitasunetik kanpo dauden eginbehar edo jardueretan elkarrekin egiteko asmoz, helduak bere ezaguera haurrarekin konpartitzen duen prozesua da (Bruner, 1998).

Umeak beraien identitate propioa eraikitzen ari dira, eta prozesu honetan onarpenaz gain, auto-estimua ere ezinbestekoa dute. Ruckertek (1994:134) baieztatzen duen bezala txakurrak auto-estimua lantzeko bide ezin hobekak dira. Txakur eta umearen artean harreman positiboa eraiki daiteke eta Finek harreman hau umearen ongizatearentzat mesedegarria dela adierazten du (Fine, 2003:425). Ume eta animalia arteko harremana sortzen denetik, animaliak irakasle, lagun eta terapeuta bezala joka dezake, Ruckertek (1994:135) adierazten duen bezala. Bandurak (1987) esaten duen bezala eredu onuragarriak izatea oso baliogarria da pertsonaren ongizatearentzat. Gainera Ruckertek (1994:143) uste du ume batek animaliak gertu izatea guztiz onuragarria dela. Horregatik umeak animalia lasai, orekatu eta maitagarriekin kontaktuan egoteko aukerak indartu beharko lirateke, haurrek harreman positibo baten eredia izateko. Gainera, animalia bitartez umeak estimu, adiskidetasun, ziurtasuna eta errespetua gara ditzake. Ezaugarri hauek beharrezkoak dira umearen ongizate emozionala bermatzeko. Beraz, umeentzako hain garrantzitsua den auto-estimua lortzeko, oso baliagarriak izan daitezke animaliak. Umeek erantzukizunaren balioa bereganatzea baliogarria dute eta, Finek (2003:216) esaten duen bezala, animalia batek ardura eta erantzukizuna garatzearen aukera ematen dio ume bati.

Finek (2003:77) animaliek efektu sozializatzailea daukatela ziurtatzen du, eta hau Vigotskyren elkarreragina kontzeptuarekin erlazionatzea ere interesgarria da. Efektu sozializatzaile honen eraginez gainera, txakur batek hezkuntza sisteman ikaskuntza kooperatiboa bultzatu dezake, interdependentzia positiboak sortuz. Gauza da beste pertsonekin erlazionatzeko gureganako konfiantza behar dugula. Eta Finek (2003:216)

baieztatzen duen bezala “la presencia de animales puede contribuir a que el niño aprenda a tener confianza”. Ume batzuek ondokoekin erlazionatzeko arazoak dituzte, eta txakur bat horrelako kasuetan dauden harresi hauek botatzeko bide aproposa izan daiteke, Ruckertek (1994) adierazten duen bezala. Gainera, ume batzuek animaliekin erlazionatzean erraztasun handiagoak topa dezakete, animalioek ez baitute epaiketarik egingo eta diren moduan onartuko dituztelako. Honetaz aparte, animalia orekatu eta lasaiek eskaintzen duten isiltasun honek, beste modu batean komunikatzeko bideak eskaintzen die. Ume batzuentzat beste pertsona batek hitzen bidez gauzak ez galdetzea momentu erlaxatua izan daiteke, isiltasun honen eraginez beste komunikazio bide berri batzuk azaleratzen direlarik. Horregatik, isiltasuna komunikazioa dela dio Serranok (2000). Onarpena islatzen duten isiltasunak daude, eta bihotza betetzen dutenak ere, Serranok (2000) adierazten duen bezala. Hau horrela izanda, txakur baten onarpenak eta hitz egitearen behar ezak umeenganako konfiantza hobe dezake (Ruckert, 1994). Konfiantza hau ukipenaren bitartez ere areagotu daiteke, eta txakur lasai batek ukipen momentu hau ahalbidetzen du. Adeitasunezko ukipen batek sentsibilitatea, errespetua eta enpatia gehitu diezaioke momentu bati (Palou, 2004). Fineren (2003) ustez, animalien bitartezko esku hartzeetan ukipenak garrantzi handia izaten du, balio terapeutikoa hartzen duelarik. Ume eta txakur baten artean gertatzen diren adeitasunezko momentu hauen eraginez, haurrak modu natural batean adiskidetasuna bezalako balioak garatu ahal izango ditu. Balio pertsonal hauek onura handiak ditu umearen garapen pertsonalarengan (Fine, 2003). Azaldutako inguru erlaxatu honekin batera, animalia baten bitartez hezkuntza prozesu batek umeek barruan dituzten tentsioak ateratzeko aukera eskaini dezakeela baieztatzen du Wildek (2000). Beraz, animaliak gaur egungo hezkuntza sisteman hain beharrezkoa den lasaitasuna berreskuratzeko bide aproposa izan daitezke. Gainera frogatua dago nola animaliek estresa ere baretu dezaketela eta, egungo gizartearen erritmoa ikusita, txikitatik landu beharreko gauza dela ikusten du Finek (2003).

Txakurrekin umeek errespetua modu guztiz naturalean bizi dezakete. Baina ez errespetua soilik txakurrekiko, baizik eta norbere buruarenganako errespetua ere (Fine, 2003:425). Pertsona batek besteenganako eta bere buruarenganako errespetua lortzen duenen, bizi garen mundua ere errespetatu eta zaintzeko ahalmen handiagoak izango ditu. Txakurrak arduraz zaintzen ikastea, geure burua hobeto zaindu eta errespetatuko dugu, Ruckertek (1994:143) baieztatzen duen bezala. Gainera, txakur

orekatu baten bitartez, bizitzako lehen etapa honetan umeak ere hain garrantzitsuak diren mugak ezartzearen garrantziaz jabetu daitezke. Txakurrekin harremanak ezartzen ditugunean mugak ezarri behar ditugu, animalia zaintzearen eta errespetatzearen arauekin adibidez. Ruckerten (1994:143) iritziz, ikaskizun hau umearen garapenerako onuragarria izango da.

Atal honekin bukatzeko, Finek (2003:423) esaten du animalien bitartez haur hezkuntzako umeek irakaskuntza aktiboa ere bizi dezaketela.

## 2. Metodologia

Atal honetan, GALa aurrera eramatean erabilitako metodologia azaltzen da. Azken finean, esperientzia honek izan dituen fase desberdinen norabidea eta izaera, metodologiak definitzen baititu.

Testuinguruaren deskribapenari dagokionez, Praktikum IIIa Deustuko Ikastolako bi urteko gelan bizi izan dut. Autismoa duela dirudien ume baten behar emozionaletatik abiatuz, klabe inklusiboan oinarritua dagoen eta etekin terapeutikoa duen esku hartze bat prestatu eta aurrera eraman izan dut.

Lan hau esku-hartze bat da eta modalitate honek metodologia zehatz bat erabiltzera eramaten gaitu. Esku hartze honetan erabilitako metodologia kualitatiboa izan da, behaketan oinarritua baitago. Bi urteko umeak direnez, behaketa izan da erabilitako bitartekorik erabilgarriena. Izan ere, behaketa aktiboa, zuzena eta parte hartzailea izan da. Metodologia kualitatibo honetan ez ditut prozedura estatistikoak erabili. Aldiz, ikerketa eta ikertzailearen interesek agindutako prozesu dinamiko eta malgu bat izan da. Ruiz Olabuénak (2003) edo Taylorek eta Bogdanek (1996) aipatzen dutenari jarraituz datuak biltzeko eta aztertzeko prozesuan rol desberdinak bereganatu ditut, behaketa parte hartzailea nire tresna erabilgarriena izan delarik. Behaketa parte hartzailea izan da ikerketan parte hartzen duten pertsonak eta eszenatokiak zuzenean behatu ditudalako eta taldean integratuta egon naizelako.

Behaketa tematikoa izan denez, lana gai konkretuetan zentratu da; emozioetan hain zuzen ere. Halere, Ana Tardosek (1969) baieztatzen duen bezala, behaketa tematiko

batean emaitza baliagarriak lortzeko, oso ondo eraikitako galderak behar izango dira. Esku-hartzea diseinatu aurreko fasean irakasleriarekin azaleratutako zenbait galdera 1. eranskinean ikusi daitezke.

Behaketak egitean ikerketaren balorazio aipagarrienak azaltzen dira eta horretarako balorazio horiek modu ordenatu eta zehatzean deskribatu behar dira. Beti ere, errealitatearen azterketatik abiatu eta komunitate zientifiko eta profesionalak egindako ekarpenekin kontrastaturik. Beraz, behaketa parte-hartzailearen bidez ondorengo emaitzak atera nituen:

- Umeek esperientzia eta emozio positibo ugariak bizitzearen beharra zeukaten.
- Behar bereziak dituzten umeetan bereziki onarpen eta ziurtasun falta bat sumatzen zen. Bi urteko ume hauen artean autismoa duela dirudien ume bat dago.
- Haurrak emozioak adieraztearen espazio eta denbora eskasa zuten eskolan.
- Eskola ingurugiroan maitasuna eta ukipen afektibo gehiago jasotzearen beharra sentitu nuen.
- Ume gehienak naturarekin kontaktuan bizitzearen aukera murrizak zituzten.
- Umeen atxikimendu<sup>3</sup> handia baieztatu nuen.
- Ume batzuk gaitasun sozial eskasak zituzten.
- Txakurrarenganako beldurrak identifikatu nituen.
- Irakaskuntza aktibo eta inklusiboa bultzatzearen beharra ikusi nuen.
- Praktikum III honetako irakaslea lasaia, atsegina, errespetutsua, berritzailea eta gertua zen. Proposamen berrietara guztiz irekia zegoen irakasle malgua zen Iban.
- Gelako testuinguruari dagokionez, ikasgela Bilboko hirian kokatuta zegoen, beraz nahiko zaratatsua zen eta estimulu gehiegi zeudela ikusi nuen.

Metodologiarekin bukatzeko, lan honetako argazkien garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa ikusten dut. Argazki hauen bitartez bizi izandakoa aztertu eta ikertu ahal izan dut eta bertatik ondorioak ateratzeko aukera ere izan baitut. Beraz, esku hartze honetan, eranskinek garrantzi handia dute, irudien laguntzarekin bizi izandakoa hobeto iker baitaitezke.

---

<sup>3</sup> Atxikimendua: Haurren eta beste pertsona baten artean garatzen den lotura emozional berezia, denboran zehar mantentzen dena, bien arteko interakzioari esker garatzen dena, eta elkarrekin egoteko nahia eta banatzean larritasuna sortzen dituen (Jauregizar, J, 2012)

### 3. Esku hartzea

#### 3.1. Diseinua

Behaketaren bitartez ondorioztatuko emaitzak aurreko puntuan argitu ditut, eta hauetatik abiatuz, esku hartzearen helburuetara heldu gaitetzke:

- Umeek esperientzia eta emozio positiboak bizitzea.
- Behar bereziak dituzten umeek bereziki onarpen eta ziurtasun momentuak bizi eta gozatzea.
- Hurrei emozioak adierazteko espazio eta denbora zainduak eskaintzea.
- Maitasuna partekatzea eta ukipen afektiboaren onurak bereganatzea.
- Naturarekin kontaktuan egotearen plazerra sentitzea.
- Umeen atxikimendua zaintzea. Joana Jauregizarrek (2012) esaten duen bezala atxikimendua garatu egiten da; “landu” edo “zaindu” egin behar da.
- Umeen gaitasun sozialak zabaltzea.
- Txakurrarenganako beldurrak gainditzeko aukera izatea.
- Irakaskuntza aktibo eta inklusiboa bultzatzea.
- Momentu lasai eta pozgarriak bilatzea.

Bi urteko gela guztietan bezala, honetan ere, erritmo eta egokitzapen maila ezberdinak zeuden. Bizitzan erritmo ezberdinak daude, behar berezi ezberdinak, baita desio eta nahi ezberdinak ere. Gauza da ezberdintasun hauek guk nola hartzen ditugun. Hemen dator beraz, behaketak egin ondoren ateratako hitz klabea: onarpena. Ume batzuetan onarpenaren beharra antzeman nuen; beste umeenganako nahiz helduenganako onarpena ere. Bereziki, autismoa duela dirudien ume batek onarpen behar handia zuela ondorioztatu nuen behaketen bidez. Beraz, ume honi onarpen hau lortzen zelan lagundu pentsatzen hasi nintzen. Aurrean daukagun izakiaren barrutizko onarpena jasotzeko, gauza bat ezinbestekoa ikusten nuen: epaiketa eza. Gizarte honetan, konturatu gabe izan arren, behin eta berriro ingurunean ditugun gauza, egoera eta pertsonak epaitzen ditugu. Beraz, *“Nola lortu ume txiki honek epaiketa puntu hori ez jasatea?”*. Asko pentsatu ondoren, azkenean ideia bat izan nuen:

Animaliek ez gaituzte epaitzen. Animaliek garen moduan onartuko gaituzte beti.

Banekien animaliak onuragarri eta osasuntsuak direla denontzat, baina entzunda neukan ere behar bereziak dituzten pertsonentzat bereziki gomendagarriak direla. Hori bai, lan honen abiapuntua autismoa duela dirudien haur bat izan zen arren, klabe inklusiboan oinarritutako esku hartze bat diseinatzea erabaki nuen. Ume honentzat hain onuragarriak izango ziren jarduera terapeutikoak gainontzeko haur guztientzat ere guztiz onuragarriak izango ziren. Beraz, autismoa duela dirudien ume honen behar berezietatik abiatuz, zelan lagundu bi urteko ume guzti hauen konfiantza eta ziurtasuna lantzen? Agian hori da umeei eskaini nahi nien esperientzia pertsonala.

Ume batzuek etiketa baten mende zeudela ikusi nuen. Heldu gehienok, nahi ez izan arren, umeak katalogatu egiten ditugu eta sortutako aurreiritzi hauek apurtzea askotan zaila izaten da. Beraz, onarpen totala jasotzearen momentu bereziak eskaini nahi nizkien bi urteko ume hauei. Onarpen honen bidez konfiantza irabaziko zutela uste nuen. Gainera, konfiantza honen bitartez ziurtasuna ere landuko zuten. Konfiantza, ziurtasuna, epaiketa eza... Zeinen hitz sakon eta ahaltzuak! Gure ongizate integrala lortzeko hain beharrezkoak eta onuragarriak ditugun kontzeptuak, hain zuzen ere.

Orduan, bilaketa eta ikerketa honetan nenbilela LAUANKA elkartearekin harremanetan hasi nintzen.



LAUANKA Animalien Bitarteko Terapia elkarte bizkaitar bat da. LAUANKA sakontasunean ezagutzeko, ikusi 2. eranskina.

2. irudia. LAUANKA

Nire esku hartzea aurrera eramán ahal izateko LAUANKAko Baloo-ren partaidetza lortu nuen. Baloo elkarte honetako terapia txakur bat da. LAUANKAren bitartez Animalien Bitarteko Terapiak (ABT) ezagutu nituen. Pertsonen ongizatea hobetzeko asmoz, esku-hartze terapeutikoetan animalien parte-hartzean datza ABT (Ruckert, 1994). Animalien Bitarteko Terapiak hobeto ezagutzeko, ikusi 3. eranskina.

LAUANKAekin jadanik harremanetan nengoen eta Animalien Bitarteko Terapien mundua ezagutzen ere. Beraz, momentu hartan, nire proiektu berritzailearen esku hartzeak prestatzen hasteko momentua heldu zen.

Nire berrikuntza proiektu hau aurrera eramaten hasi baino lehen, ezinbestekoak nituen pausu batzuk eman behar nituen: Baimenak. Lehenengo eta behin, ikastolaren baimena lortzeko idatzia prestatu nuen (ikusi 4. eranskina). Behin lortuta, gurasoen baimenak lortzeko idatziak ere prestatu nituen (ikusi 5. eranskina).

Esku hartzearen diseinuari dagokionez, erabili izango genituen espazioak bi urteko bi gelak izango ziren. Deustuko Ikastolan bi urteko bi gela daude. Gela hauei erreferentzia egiteko, gela bakoitzeko tutoreen izenak erabiliko ditut. Nire Praktikum IIIa Ibanen gelan egin dut, baina proiektua aurkeztu nionean, esku hartzea bi geletan aurrera eramatea eskatu zidan; bai berean, bai Mikelen gelan ere. Ideia ona iruditu zitzaidan, Ikastolako bi urteko ume guztiek bizipen eta aukera hau izan zezaten. Hau jakinda esku hartzea bi geletarako prestatzen hasi nintzen.

Prestakuntza fase honetan material ezberdinak diseinatu behar izan nituen: Nik sortutako Balooren ipuina, Balooren marrazkiak, Balooren irudiak gela apaintzeko, Baloori buruzko zenbait material didaktiko, Balooren irudiarekin eraikitako puzzle bat... Diseinatutako material guzti hauek lanaren hurrengo atalean zehaztuta agertuko dira.

Esku hartzearen diseinuarekin bukatzeko, honetan egongo ginen helduen rola argi finkatu behar izan genituen. Errespetu eta maitasunez prestatutako esku hartze bat izan zen eta argi izan genuen hau izan behar zela gure jarrera esku hartze guzti honetan zehar. Horretarako, umeen behar eta nahiak momentu oro errespetatuak izango zirela argi ikusi genuen. Aldi berean, ziurtasunezko erreferentzia pertsonak izanda, umeek behar izango zuten konfiantza osoa transmititzearen ardura ere hartu genuen. Beraz, puntu honetan bizipen honetan egongo ginen helduen rola pixkat ezarri genituen. Hori bai, guzti hau modu guztiz libre eta malgu batean proposatu genuen.

- Iban eta Mikel, bi urteko tutoreak izanik, umeen babesa eta konfiantza bermatuko zuten pertsonak izango ziren.
- Ni, Izaro, esku hartzearen gidaria eta koordinatzailea izango nintzen, errespetua nire ildo nagusia izango zelarik.
- LAUANKAko kolaboratzaileak, Nagorek, Balooren zaintzen ongizatea bermatuko zuen, errespetua ere bere ildo nagusia izango zelarik.

## 3.2. Inplementazioa

### 3.2.1. Beroketa

Beroketa honen proposamena umeak Baloo ezagutzen joatea zen. Ez nuen bat-batean txakur bat gelara sartzea nahi. Umeekin aurretiazko prestakuntza eta beroketa landu nahi nuen. Jakin badakit txakur bat beraien eguneroko ingurune hurbilean izatea inpresio eta hunkipen handiko egoera izan daitekeela. Horregatik, Baloo pixkanaka ezagutzen hasteko, hurrengo jarduerak diseinatu nituen.

#### IPUINA

- Balooen ipuina diseinatzen

Ipuin honen helburua umeek Baloo ezagutzea zen. Balooen ipuin bat diseinatu nuen; “*Baloo ezagutzen*” deiturikoa (ikus 6. eranskina). Ipuin honetan txakurra aurkeztu nien; zenbat urte dituen, non bizi den, zer gustatzen zaion.... Gainera umeekin egotea asko gustatzen zaiola argi utzi nahi izan nien, beldurren kontua dela eta. Gainera bizi izango zutena aurreikusteko, txakurrarekin bizi izango zituzten ekintzak azaldu nitzkien; hamaiketako eman, ilea orraztu, besarkatu, musukatu...

- Ipuinaren kontakizuna (ikus 7. eranskina)

Duela asteak gurasoei baimenak eman nizkiela, beraz ordura arte umeek familiarekin Baloori buruz hitz egiteko aukera izan zuten. Ipuina kontatu nienean jadanik bazekiten Baloo Ikastolara etorriko zen txakur bat zela. Txakur bat zetorrela jakin arren, oraindik ez zekiten nolakoa zen, ezta gustatzen zitzaizkion gauzak zeintzuk ziren ere. Egia esan, ipuin hauetan guztiz adi egon ziren, 7. eranskinean ikusi ahal den bezala. Bereziki, Ibanen gelan kontatu nuenean, argi foku txuri bat ipini eta horrekin beraien arreta ia osoa lortu genuen. Baloori buruzko galderak egin zizkidaten eta hau beroketa interesgarria izan zen. Gainera, aldi berean, umeetako batzuek beldurren bat zeukatela ere erraz susmatu nuen. Datu hauek oso baliagarriak iruditzen zitzaizkidan bizi izango genuena kontzienteki prestatzeko eta zaintzeko.



## BALOOREN MARRAZKIA MARGOTZEN

Marrazki hauen bitartez umeek Balooren itxura fisikoa bereganatzen hasteko aukera izan zuten. Esan bezala, txakur bat zure eguneroko gelan sartzea, ikusmenerako fenomeno harrigarria da, beraz, horrelako marrazkiekin Balooren gorputza asimilatzen hasi ziren (ikusi 8. eranskina).

## GELA APAINTZEN

Inguruak ere garrantzi handia jokatzen du umeen egunerokotasunean. Beraz, guztion artean, Balooren irudiekin gela apaindu genuen. Jarduera honekin, berriro ere, bi urteko umek txakurrarekin ohitzen jarraitzeko aukera izan zuten. Harrigarria izan zen, apainketa hauek eragindako erreakzioak aztertzea. Balooren presentzia integratzen joan ziren eta gelako kide bat izango balitz bezala kontuan hartzen joan ziren (ikusi 9. eranskina).

### **3.2.2. Saioak**

Baloo ikasgelara sartzean ongi etorria eman genion eta lehen momentu hauetan umeek emozio asko azaleratu zituzten. Txakurra ikasgelan ikustearen poza eta harriduraren eraginez sortutako emozio eztanda ulertzeko 10. eranskina ikusi.

Lehen emozio hau igarotzean, umeei txakurrari zer gustatzen zaion azaldu genien. Horrela, umeei txakurra zaintzearen ardura hartu zuten. Lehenengo eta behin, goizeko hamaiketako eman genion, guk geuk bezala Balook ere janaria behar duela esanez. Elikadura momentu hau ulertzeko, 11. eranskina ikusi.

Ondoren animalien zaintzen inguruan aritu ginen eta, momentu horretan, nahi izan zuenak Baloo orraztu eta apaindu zuen. Orrazketa momentu hau ulertzeko ere, ikusi 12. eranskina.

Balooren bisitetan maitasun, adiskidetasun eta kidesun keinu ikaragarriak bizi izan genituen, eta hauek irudietan azaltzea zaila izan arren, 13. eranskinarekin momentu goxo hauek nolakoak izan ziren antzeman daiteke.

### 3.2.3. Esperientzia zarratzen

#### MARRAZKI LIBREA

Baloo gelatik atera denean, umeei marrazki librearen momentua eskaini diet. Harrigarria izan da marrazki hauetan adierazitakoa. Jarduera librea izan da hau eta bizi izandakoa azaleratzeko aukera izan dute.

#### BALOOREN ZENBAIT MATERIAL DIDAKTIKO

Zenbait material didaktiko diseinatu nituen eta hauekin izaki bizidun guztien arteko antzekotasunak modu aktibo batean bizi izan genituen. Jarduera honekin animalia eta pertsonen arteko antzekotasunak deskubritu ditugu, eta honekin errespetua eta enpatia bezalako baloreak eta sentimenduak landu ere.

#### PUZZLEA

Balooren irudiekin lau puzzle diseinatu nituen (ikusi 17. eranskina), umeei bere irudiaren bitartez Balooen esperientzia betiko gogora dezaten. Hurrengo egunean, gela lau txokotan banatu nuen eta txoko bakoitzean puzzle bat ipini genuen. Umeak askatasun osoz mugitu ziren eta hau egiten zuten bitartean animaliarekin bizi edo sentitutakoa azaleratzeko aukera ere izan zuten.

#### BIDEOA

Amaitzeko, esku hartzean ateratako argazki guztiekin, esperientzia berritzaile honetako bideo bat editatu genuen. Bi urteko bi gelak batu genituen eta denak elkarrekin geundelarik bideoa proiektatu genuen. Guztiok elkarrekin Baloorekin bizi izandakoa gogoratu genuen.

(<http://elkarezagutzen.blogspot.com.es/2014/05/deustuko-ikastola-hh-2-urte-balooren.html>).

### 3.3. Ebaluazioa

Orain arte irakurritakoarekin, naturak eta animaliek gizakiongan dituzten onurak jadanik argi ditut. Onura hauek erraz ikusi izan ditut bi urteko ume hauekin, baina esan beharra daukat onurarik ahaltsuenak behar bereziak dituzten umeekin ikusi ditudala. Esan bezala, esku hartze berritzaile hau bi gelatan burutu nuen eta bi egoera ezberdin hauetan bizi izandakoa ebaluatzeko bizi izandako zenbait esperientzia idatziko ditut.

#### **Mikelen gelan**

Mikelen gelan adibidez, lehen esan bezala, Autismoa duela dirudien ume bat dago. Oraindik ikerketa sakonak egiten ari dira, baina mediku, guraso nahiz hezitzaileak gai honen inguruan dabilta. Bere mundu barnetik ez dela ateratzen ematen du, ez baitu begietara inoiz begiratzen eta ez baitu beste ume zein helduekin komunikaziorik mantentzen. Emozioak azaleratzeko zailtasun handiak dituela nabaria da. Mikel bere tutorea da eta oraindik bere ahotsa ere ez duela entzun baieztatu zidan. Ume honekin bizi izandakoa liluragarria izan zen. Baloo gelatik sartu bezain pronto ume hau emozioz oihuka hasi zen. Emozio eztanda bat izan zuen. Barruan zeukan guztia kanpora ateratzeko bide bat izan zen hau, eta guk babesa eman genion. Tutoreak, txundituta, zera esan zidan: *“Utziko diogu oihukatzen behar duen beste, bere ahotsa entzuten dudan lehen aldia baita. Atera dezala barruan daukan guzti hori”*. Tripa barnetik ateratako oihuak izan ziren. Oihu gozagarriak. Baloo gelan ikustean asko hunkitu zen eta emozio hori, zorionez, ez zuen bere barnean utzi. Gainera, pixkanaka, Baloorengana hurbildu zen eta berari bai, berari begietara begiratu zion. Esperientzia honen bitartez ume hau emozioak barnetik ateratzeko kapaza izan zen eta izaki bizidun batekin harreman kontaktu zuzena mantentzeko kapaza ere. Sekulako oparia. Txakurrarekin harreman polita eraiki zuen eta Balooren zainketan parte hartu zuen. Momentu batean irribarre bat ere atera zitzaion. Ikasturteko lehen irribarrea. Beraz, Mikel, txundituta, egun hartan bertan haren gurasoekin batzartu zen. Gertatutakoa azaldu eta gurasoak negar batean hasi ziren. Gaur egun, Baloorekin terapia bat hastear daudela jakin dut. Gainera jaso ditudan azken datuengatik, familiak etxean txakur bat izango du, lau hankako kide leial honek umea lagunduko duelakoan.

Mikelen gela honetan beste haur baten kasu harrigarri bat ere bizi izan genuen. Ume hau oso urduria da eta Mikelen arabera jarduera batean ezin ditu 15 segundo baino gehiago eman. Jarduera batetik bestera jarraian aldatzearen behar honek egoera zailak eragiten ditu gelako egunerokotasunean. Harrigarria dirudien arren, ume hau Balooren ondoan denbora gehien eman zuen umea izan zen. Agian Balooren lasaitasuna gehien behar zuena zen. Txakurrak bere arreta osoa bereganatu zuen, bere erritmoa jaitsi eta bere bihotz taupadak asko lasaitu zituen. Txakurraren presentziaren bitartez pixkanaka lasaituz joan zen eta bere bihotz taupadak baretzen ere. Pixkanaka bere barnealdearekin konektatzen hasi zen eta, bere motibazio naturaletik abiatuta, Baloo zaintzerakoan parte hartze ikaragarria hartu zuen. Hainbeste lasaitu zen, gauza bat proposatu geniola: *“Baloori bihotz taupadak entzun nahi dizkiozu?”* – esan nion. Ekintza simple honen bitartez, animalia gorpuzaren gainean etzan eta bere belarria Balooren bihotzaren ondoan ipini zuen. *“PUM-PUM, PUM-PUM...”*. Harrigarria izan zen ekintza simple honek umearengan eragindako efektu lasaigarria.

Lanaren puntu honetan ukipenaren garrantzia azpimarratu nahi dut.



3. irudia. Ukipenaren plazerra

Bizitza osasuntsua izateko zein beharrezkoak ditugun ziurtasuna, maitasuna eta konfiantza! Badirudi umeek hau jaso zutela eta argazkiekin azalpenekin baino hobeto ulertuko delakoan nago (ikusi 14. eranskina).

Batzuetan irudi batek hitzek baino askoz gehiago erakusten du.

Lasaitasuna, maitasuna, konfiantza, ziurtasuna, epaiketa eza, onarpena, poztasuna, emozioak azalratzea, laguntza, beroa, errespetua.... Zeinen hitz sakonak!

### **Ibanen gelan**

Ibanen gelan ere gauza harrigarriak bizi izan genituen, baina guztia azaltzea ezinezkoa egiten zaidanez, gai konkretu batean zentratuko naiz: beldurrak. Ibanen gela honetan

zenbait umek beldurra zuten. Uste dut hurrengo argazkietan beldurra zuten umeak zein diren argi ikusten dela.



4. irudia. *Beldurrak*

Beldurrak errespetatu genituen eta Balooren ondoan egotera ez genuen inor derrigortu. Bizipen hau esperientzia osasungarri, onuragarri eta aberasgarria izatea nahi genuen, beraz, nahi zuenak hor zeukan Baloorekin egoteko aukera, eta nahi ez zuenak lasai egon zitekeen berak behar zuten denbora eta distantziarekin. Hori bai, harrigarria izan zen umeek, beraien erritmoak errespetatuz, bizi izan zituzten prozesu pertsonalak ikustea. Ume batek, bereziki, borondatezko prozesu pertsonal sakona bizi izan zuen Baloorengana gerturatzeko momentuan. Hasieran, beldurraren eraginez, bere erreferentzia den irakaslearen besoan babesean egon zen. Gustura zegoen sostengua ematen zioten beso haien artean. Beso bero horien artean, bi urteko ume honek behar zuen babesa lortu zuen. Bere erritmo pertsonala guztiz errespetatua izan zen, guk ez baikenuen bere prozesu honetan parte hartu nahi izan. Hori bai, bere ondoan egon ginen, behar zituen beroa eta babesa eskaintzen. Bere barruko indar eta instintu propioak bultzatuta, mugimendu oso interesgarriak izan zituen. Izan ere, distantzia hartatik Balooren presentziaz ere gozatu zuen. Guk, helduok, bere beldurraren emozioa identifikatu eta onartu genuen. Baina denbora aurrera zihoala, bera bakarrik gerturatzeko hasi zen eta beldurren harresiak berak bakarrik gainditzen. Gu bere ondoan egon ginen baina prozesua berak bakarrik egin zuen. Bere erritmoak errespetatuz, umea Baloorengana gerturatu zen. Pixkanaka, poliki poliki. Txakurra ukitzeko, bere erreferentziazko pertsonaren bitartezko ziurtasunetik babestuta abiatu zen. Eta azkenik, bere behar eta nahiei jarraituz, txakurraren ondoan kokatu zen (ikus 15. eranskineko sekuentzia fotografikoa). Ume honek ukipenarekin ere garapen interesgarria bizi izan zuen, saio amaieran txakurrari besarkadak eta muxuak ematen bukatu zuelarik (ikus 15. eranskineko azken irudia). Prozesu hau berak bakarrik egin zuen. Gainera, bizipen hau,

gurasorik gabeko esku hartzea izan zen. Gurasoek umeenganako proiektzio inkontziente asko egin ahal dituzte, eta beldurren kasuan jakina da gurasoek dituzten beldurrak umeengan ere erraz proiektu daitezkeela. Izan ere, ume honen familiak bere semeak txakurrenganako beldurrari buruzko informazioa azaldu zigun. Beraz, gurasoen presentzia ez izateak beldurren gaitz prozesu honetan mesede egin zigulakoan gaude. Oso hunkigarria izan zen beldurren harresia nola botatzen zuen ikustea. Esan dudan bezala, bizi izandakoa hitzetan azaltzea zaila da, beraz, bizi izandako argazki sekuentzia bat prestatu dut ume honek bere beldurrak zelan gaitz zituen ulertzeko (ikusi 15. eranskina).

Ibanen gelan, beldurren gaiak gain, beste zenbait egoera interesgarri ikusi ziren.



Adibidez, adiskidetasunaren konfiantza eta lotura bereziak ere argi islatu ziren. Bi lagun arteko konplizitate oparipolit hau adibidez. Egoera honen argazki gehiago aztertzeko ikusi 16. eranskina.

5 irudia. Txakurraren konplizitatea eta adiskidetasunaren konfiantza.

Eskolak haurrei ematen dizkieten erakargarritasunik handienetako batzuk ikaskideak eta lagunak dira (Enesco del Olmo, 1992)

Egoera batzuk irudiekin hitzekin baino hobeto azal daitezke. Bizi izandakoa irudietan ikusi nahi bada, ondorengo helbidean bi bideo ikusteko aukera dago, eta agian bizi izandakoa irudiekin hobeto ulertzeko aukera ere.

<http://elkarezagutzen.blogspot.com.es/2014/05/deustuko-ikastola-hh-2-urte-balooren.html>

#### 4. Ondorioak

Txakurraren bitartezko esperientzia honekin esparru teorikoan azaldutako umeenganako onura fisiko, mental nahiz espiritualak lortu direla uste dut. Lanaren hasieran azaldu dudana bezala, umeek onartuak izatearen beharra dute. Balook ez ditu umeak epaitu ezta etiketatu ere. Beraz, umeek baldintzarik gabeko onarpen hau sentitzean askatze prozesu bat bizi izan dute. Balooen egiazko onarpen zintzoa jasotzean umeek beraienganako konfiantza ere irabazi dute. Gainera, bere buruarenganako konfiantza irabazten duenean, pertsona batek beste pertsonenganako konfiantza altuagoa ere lor dezake. Jasotako konfiantza honen eraginez, eguneroko bizitzan gauza emankorragoak egiteko kapazagoak izango gara. Balooen bizipenaren eraginez eta konfiantza honen bitartez, umeen auto-estimua ere hobetu ahal izan da, haurrak txakurratik aintzat hartuak eta baloratuak sentitu baitira. Auto-estimua irabaztearen lehen pausuak emanak daude, baina orain prozesu hau gehiago landu beharko litzateke eta gehiago iraun beharko luke. Auto-estimu hau potentziatuz gero, bi urteko haur hauek naturaren osotasunean estimu handiagoa izango luketen pertsona bihurtuko lirateke.

Guzti honekin batera, pertsonen eta gizartearen ongizaterako hain garrantzitsua den errespetua ere landu da. Lanean zehar azaldu den bezala, Baloo ahalik eta orekatuago egoteko, animaliarekin erlazionatzeko muga batzuk ezarri dira. Oinarriok umeek beraien egunerokotasunean erabiltzen dituzten zenbait ararekin lotura zuzena izan dute; ezin da minik eman, maite ditugunak zaintzearen garrantzia.... Balooekin kontaktuan jartzean, txakurra errespetatu dute eta aldi berean, onarpenaren bitartez, errespetu osoa jaso dute. Errespetua hezkuntza esparruko nahiz munduko ongizaterako ezinbestekoa den balioa da. Baloo orraztean animaliak zaintzearen kontzientzia hartu dute, eta honekin izaki bizidun guztiak errespetatzearena ere (ikusi 12. eranskina). Balook behar duen errespetu hau ulertzean, norbere buruarenganako errespetua ere sentitu dute. Behin bereganatuta, besteenganako errespetua ere izan ahalko dute. Konfiantzarekin bezala, errespetuarekin ere antzekoa gertatzen da; Balooenganako, norberarenganako eta besteenganako errespetua barneratzean, munduarekiko errespetua ere lortzen da. Balooen bitartez bereganatutako errespetu honen bitartez gaur egungo hezkuntza sisteman beharrezkoa den solidaritatea eta lankidetzaz landu dugu. Gaur egungo hezkuntza konpetentzian oinarritzen da, eta animalien bitartezko esku hartze honekin transmititzen diren balioekin eskola solidario eta kolaboratzaile bat lortu daitekeela ikusi izan da. Honetaz gain, Balooen esku hartzearekin animalia eta gizakion

arteko berdintasunak bizi izan dituzte umeak (ikus 18. eranskina). Esperientzia honekin azken finean hain ezberdinak ez garela konturatu dira eta gauza asko partekatzen ditugula; elikaduraren beharra (ikus 11. eranskina), zaintzaren baliagarritasuna (ikus 12. eranskina), maitasun eta laztanen plazerra (ikus 13. eranskina)... Balooren eta beraien antzekotasunak ikustean (ikus 18. eranskina), umeek enpatia ere bizi ahal izan dute. Enpatia besteen lekuan jartzearen gaitasunari deritzo eta giza harremanetarako ezinbestekoa da.

Gainera aurreko orrialdeetan azaldu dudak bezala, Baloorekin umeek afektibitatea ere asko landu dute. 19. eranskinean ikus daitekeen bezala, maitasun asko bizi izan da esku hartze honetan zehar. Maitasun hau bi noranzkoa izan da eta saio hauetan adiskidetasuna bezalako kontzeptuak asko garatu dira. Ukipenaren bitartez, Balooren gorputzetik bero handia jaso dute eta animalia orekatu honen gorputza babes tokia bezala antzeman izan dute ume askok (ikus 16. eranskina). Ukipenaren bidez, ume askok zituzten harresi pertsonalak gainditu dituzte, bere alde afektiboa azaleratzearen beldurrik izan gabe (ikus 14. eranskina). Ukipen goxo honen bitartez gainera, sozialki harremanak izateko gaitasunak ere garatzen doaz. Esan daiteke, txakurrak funtzio sozializatzailea izan duela, eta onarpenaren bitartez umeek taldeko partaide izateko gaitasuna ere landu dutela. Taldeko kide izateko sentimendu hau lortzeak ongizate pertsonala dakar eta hezkuntza prozesurako baliagarria izan daitekeela baieztatu daiteke.

Beraz, guzti honekin, Balook hurrek beraien emozioak azaleratzea lortu du. Lan honen hasieran esan bezala, emozioetan heztea hezkuntza prozesuko erronka handienetakoa da. Beraz, animalien bitarteko esku hartze honen bitartez emozioei bere lekua eta denbora eskaintzea ahalbidetu da. Gainera, txakurraren bitartez, desoreka emozional batzuk lantzeko aukera ere izan dugu. Izan ditugun saio gutxi hauetan desoreka emozional hauek lantzea erronka handiegia izan da, beraz ume hauek oreka hauek bilatzeko bidaia aproposak lantzea onuragarria izango litzateke. Animalien edo naturaren bitarteko esku hartze gehiago proposatzea aukera on bat izango litzateke, baina badaude hezkuntza eremuan eginbehar onuragarri eta baliagarri asko ere. Emozioen heztearekin jarraituz, adimen emozionala garatzeko Balooren esperientzia bide egokia dela ikusi dut. Adimen emozionala norbere emozioez jabetzea da, horiek identifikatzea eta ulertzea, baita besteenak ere. Esku hartze honetan zenbait umeek beraien bizi izandako emozio propioak identifikatu eta onartu dituzte, beldurra adibidez.



Finek (2003:198) ondorengo ideia hau nabarmentzen du bere liburuan: “Los niños, especialmente los que padecen dificultades de aprendizaje en las escuelas normales, mejoran su respuesta ante tareas de aprendizaje y presentan una disminución de la sintomatología cuando participan en el cuidado de animales y están involucrados en el estudio de la naturaleza”. Beraz, gai honen inguruan ikertuta dagoena ikasi eta nik neuk bi urteko haur honekin pertsonalki bizi izandakoaren ondorioak aztertu ondoren, gaur egungo gizakiok naturarekin genuen harremana berreskuratu behar dugula uste dut. Freirek (2011) baieztatzen duen bezala, gaur egun AGHA diagnostikatzeko tendentzia hazkundera ikusita, agian gauzei buruz berriz hausnartu beharko genuke. Freirek, aldiz, “Natura Galeragatiko Asaldura” kontzeptuaz hitz egiten du, gaur egungo ume eta heldu askok bizi dugun egoera pertsonalak ikusita. Umea ume izaten utzi behar dugu, bere erritmo pertsonala errespetatuz eta bere garapen pertsonalean konfiantza osoa jarritz. Naturan bizi diren izaki bizidun guztiak, hazi eta garatu egiten dira, inguru eta babes egokia jasoz gero. Beraz, Freireren ustez, haurrek berezkitasunez daukaten sen, instintu eta potentzialean konfiantza izan beharko genuke. Guzti hau natura, bere osotasunean, esku hartze berritzaile honekin bezala, gure egunerokotasunetik ahalik eta gertuen mantenduz. Ume batek barrualdeko eta kanpoaldeko garapen harmonikoa bizi beharko luke. Esperientzia hau bizi izan eta gero, umeak haziak bezala hazten direla konfirmatu dezaket. Hazi bat landatzean, bere erritmoa errespetatu behar da. Ingurune nahiz zaintza egokiak eskainiz, bere barrualdeko potentzialaren indar eta instintuaren eraginez, hazia osasuntsu haziko da. Udaberrian ez dugu landarea loreak ateratzera animatu behar, naturak berak momentu aproposa heltzean landareak loratuko baititu. Umeak berdin hazten dira. Bere barnealdeko gaitasun, indar eta instintuen eraginez. Berezko instintu hauek errespetatu behar ditugu eta, horrela, umeak bere motibaziotik abiatuta, mundua ezagutzeko gogoak izango ditu. Naturaren eraginez, gaur egun galdu edo ezkutatu dugun instintu natural hori errekuera dezakegu. Gainera, egindako animalien bitarteko esku hartze berritzaile honekin adibidez, umeek beraien baitan dituzten instintuak ezagutu, konektatu eta onar dezakete.

Esparru teorikoan azaldu dudana bezala animalien bitarteko esku hartzea 60ko hamarkadan hasitako mugimendu bat da. Bidea hasia dagoen arren, medikuntza edo hezkuntza esparruan ibiltzeko asko geratzen da oraindik. Gure pentsamenduak malgutzen eta irekitzen jarraitzen baditugu, gizakiok animalia eta naturaren bitarteko ongitasun osoa lor genezake.

Pertsona askorentzat proiektu berritzaileegia dirudien arren, Mallonek (1994) esaten duen bezala animalien bitartezko esku hartzeak hezkuntza arloan ekar ditzaken onurak ikaragarriak dira. Bereziki umeentzako hain garrantzitsuak diren esperientzia positiboak ahalbidetzen dituelako eta hezkuntzaren helburuetariko bat haurrek ahalik eta emozio positibo gehien bizitzea izan beharko litzatekeelako. Guzti hau, elkarreraginaren markoaren barnean, izan ere, haurraren ezaguera eta gogo-jarduera beste izaki bizidun batzuekin elkarreragiten sortzen baita (Vigotsky, 1979).

##### 5. Erreferentzia bibliografikoak

Bandura, A. (1987). *Pensamiento y acción: Fundamentos sociales*. Barcelona: Martínez Roca.

Bruner, J. (1998). *Realidad mental y mundos posibles*. Barcelona: Gedisa.

Burch, M. R. (1995). *Volunteering with your pet: How to get started in AAT with any kind of pet*. Nueva York: Howell Book House.

Enesco, I. del Olmo, C. (1992). *El trabajo en equipo en primaria. Aprendiendo con iguales*. Madrid: Alhambra Longman.

Fine, H. (2003). *Manual de terapia asistida por animales. Fundamentos teóricos y modelos prácticos*, Barcelona: Fundación Affinity.

Freire, H. (2011). *Educar en Verde. Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza*. Barcelona: Graó.

Jauregizar, J. (2012): *Atxikimendua ulertzen Hezkuntzaren ikuspegitik*. UPV/EHUko Euskara eta eleaniztasuneko Errektoreordetzaren sare argitalpena. [Artikulu online] 2014ko martxoaren 22an kontsultatua. <http://testubiltegia.ehu.es/>

Louv, R. (2005). *The last child in the Woods. Saving our children from Nature-deficil Disorder*. North Carolina: Athlantic Books.

Mallon, G. P. (1994). *Some of our best therapists are dogs*". *Child and Youth Care Forum*. New York: Sciences Press.

Miller, A. (1980). *Por tu propio bien: raíces de la violencia en la educación del niño*. Barcelona: Tusquets. (2009).

Palou, S. (2004). *Sentir y crecer. El crecimiento emocional en la infancia. Propuestas educativas*, Barcelona: Graó. (6.<sup>a</sup> edición. 2013).

Pikler, E. (2000). *Moverse en libertad: desarrollo de la motricidad global*. Madrid: Ed. Narcea.

Ruckert, J. (1994). *Terapia a cuatro patas*, Barcelona: Fundación Affinity. (2.<sup>a</sup> edición. 2007).

Ruiz Olabuénaga, J.I. (2003). *Metodología de la investigación cualitativa*. Universidad de Deusto. Bilbao.

Serrano, S. (2000). *Comprender la comunicación*. Barcelona. Paidós.

Tardos, A. (1969). *Le rôle de l'observation dans le travail éducatif. Comment et pourquoi observer in ouvrages et fascicules*. Association Pikler Lóczy. France.

Taylor. S. J., Bodgan, R. (1996). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Barcelona: Paidós.

Vigotsky, L.S. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Barcelona: Grijalbo.

Wild, R. (2011). *Educar para ser. Vivencias de una escuela activa*. Barcelona: Herder.

# ERANSKINAK

## 1. eranskina: BEHAKETA TEMATIKOKO ELKARRIZKETA MOTA BAT

- Nola bultzatzen dira esperientzia eta emozio positiboak bi urte dituzten haur hauen eguneroko bizitzan?
- Umeak onartuak sentitzen dira?
- Nolakoa da ume hauen atxikimendua?
- Umeen nahi eta beharrak errespetatzen dira?
- Zelan erlazionatzen dira behar bereziak dituzten umeak gainontzeko umeekin?
- Zelan identifikatzen eta azeleratzen dituzte umeak beraien emozioak?
- Eguneroko bizitzan zelan lortzen dira maitasun umeak?
- Zein da umeen jarrera besteen emozioen aurrean? Enpatia sentitzen dute?
- Noiz daude umeak motibatuta?
- Zein da irakaslearen jarrera umeen emozioen aurrean?
- Zein harreman daukate umeak naturarekin?
- Nola ahalbidetzen da berezkotasuna?
- Zelan ahalbidetzen da umeen irakaskuntza aktiboa?
- Zelan bultzatzen da irakaskuntza inklusiboa?

## 2. eranskina: LAUANKA

LAUANKA Animalien Bitartezko Terapia elkarte bizkaitar bat da.



Animalien bitartezko terapien bidez jendeari laguntzea posiblea dela pentsatzen duten pertsona batzuren esfortzu eta ilusioari esker jaio zen LAUANKA Elkarte, 2009. urtean, Bizkaian. LAUANKA elkarteak txakurren bitartezko ekintza, hezkuntza eta terapiak egiten ditu talde edo pertsona hartzailearen arabera, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin.



*LAUANKA elkarteko bi txakurrak: Jennie eta Baloo*

LAUANKAko lan-taldea: psikologoa, gizarte laguntzailea, bezaketa eta animalien bitartezko terapia teknikariak eta Golden Retriever arrazako terapia txakur bi. Jeannie eta Baloo Golden Retriever arrazako txakur bi dira, Iruñean jaioak, Paco Mendoza hazlearen eskuz.

Jeannie eta Baloo Un Perro Andaluz Elkarteko Juan Jiménez Oyonartek eta Lauanka Elkarteak trebatu dituzte oinarrizko obedientzian eta terapia txakurrak bezala. Juan fisioterapeuta, zaldiketa terapeutikoan aditua, zereginetako terapeuta, laguntza txakurren bezatzailea eta Animalien Bitartezko Terapietan esperientzia handia dauka. Jeanniek eta Balook albaitarien kontrol sakona pasatu dute eta zeregin honetarako trebatuak eta gaituak daude. Nazioarteko osasun eta portaera baldintza guztiak betetzen dituzte. Esan beharra dago, baita ere, albaitarien azterketak egiten zaizkiela etengabe.

Halaber, Seguros Bilbao eta Sabadell Aseguradora S.A.-rekin, A.V.E.P.A.k (Asociación de Veterinarios Españoles de Pequeños Animales), izenpetua, segurua daukate txakurrek.

Jabearen erantzukizun zibilaren bermea, txakur aseguratuak besteei (pertsonek, animali edo gauzei) egindako gorputzaren lesioak eta kalte materialak aseguratzeko ditu. Jabearen eta noiz behinkako jabearen erantzukizun zibila estalita dago.



### 3. eranskina: ANIMALIEN BITARTEZKO TERAPIA (ABT)



Pertsonen ongizatea hobetzeko asmoz, esku hartze terapeutikoetan animalien parte-hartzean datza Animalien Bitartezko Terapia (ABT).

#### **Onurak** (Fine, 2003)

- Fisikoki: Trebetasun motore mehe eta lodien hobekuntza.
- Psikologikoki eta emozionaliki: Emozioen adierazpena erraztu. Antsietatea eta estresa gutxitu, tentua, motibazioa eta auto-estimua hobetu.
- Gizarte harremanetan: txakurra beste pertsonenganako komunikazio tresna bihurtzen da eta elkarrizketa eragiten du. Animaliak efektu sozializatzailea du.
- Kognitiboki: memoria, hizkuntza, arrazoitzea eta orientazioaren hobekuntza.

Terapia txakurra hezkuntza edo terapia programa batean parte hartzeko espezifikoki trebatua dagoen animalia da, profesionalaren tresna bezala erabiliz; bere funtzioa estimulu egokia ematea da, helburu terapeutikoak hobe, arinago eta erabateko moduan lortuz. Txakurraren trebatze garatuak ariketa konplexuak egitea eta



pertsonaren atentzioa deitzea ahalbidetzen du, bere kontzentrazioa eta esperientzia horrekiko jarrera positiboa mantenduz. Txakurrarekin errespetatuz lan egiten da beti eta horretarako trebatze positiboan oinarritzen dira, animaliarekin errefortzu positiboaren bidez erlazionatuz (Ruckert, 1994).

#### 4. IKASTETXEAREN BAIMENA



**Los días seis y ocho de Mayo de 2014, contaremos con la colaboración del equipo de trabajo de la asociación de terapia asistida con animales LAUANKA en el aula de dos años de la Ikastola de Deusto. Tendremos la visita de la trabajadora social y técnico en terapia asistida con animales y adiestramiento. Con ella también tendremos la posibilidad de recibir a Baloo; un perro de terapia asistida de la raza Golden Retriever.**

La asociación LAUANKA nació en Bizkaia en el año 2009 para ayudar a personas de una manera diferente, es decir, a través de la terapia asistida con animales.

Baloo están entrenado en obediencia básica y como perro de terapia por Juan Jiménez Oyonarte de la Asociación Un Perro Andaluz y por la asociación LAUANKA.

Los perros de LAUANKA han pasado un exhaustivo control veterinario y están entrenados y capacitados para esta labor cumpliendo todos los requisitos tanto sanitarios como de comportamiento que regulan los organismos internacionales.

Están en constante vigilancia de un profesional y sometidos a revisiones veterinarias.

Así mismo, poseen un seguro contratado con Sabadell Aseguradora S.A. suscrita por A.V.E.P.A. (Asociación de Veterinarios Españoles de Pequeños Animales) y con Seguros Bilbao. La garantía de responsabilidad civil de la persona propietaria del perro cubre las lesiones corporales y/o daños materiales (a personas, animales o cosas) causados a terceros por el perro objeto del seguro. Está cubierta tanto la responsabilidad civil de la persona propietaria como la de su poseedor ocasional.

#### **LAUANKA:**

ASOCIACION DE TERAPIA ASISTIDA CON ANIMALES / ANIMALIEN BITARTEZKO TERAPIA ELKARTEA

[www.lauanka.org](http://www.lauanka.org) y en Facebook-en ere



**2014.eko Maiatzak 6 eta 8an LAUANKA-ko (Animalien bitartezko terapia elkarte) lan-taldearen kolaborazioa izango dugu Deustuko Ikastolako Haur Hezkuntzako 2. urteko gelan. Egun horietan LAUANKA-ko gizarte laguntzailea, eta bezaketa eta animalien bitartezko terapia teknikaria izango dugu gurekin. Berarekin Baloo etorriko da; Golden Retriever arrazako terapia txakur bat.**

Animalien bitartezko terapien bidez jendea laguntzea posiblea zela pentsatzen zuten pertsona batzuen esfortzu eta ilusioari esker, jaio zen LAUANKA Elkarte 2009. urtean, Bizkaian.

Baloo “Un Perro Andaluz” Elkarteko Juan Jiménez Oyonartek eta LAUANKA Elkarteak trebatu dituzte oinarrizko obedientzian eta terapia txakurrak bezala. Juan fisioterapeuta, zaldiketa terapeutikoan aditua, zereginetako terapeuta, laguntza txakurren bezatzailea eta Animalien Bitartezko Terapietan esperientzia handia dauka.

Balook albaitarien kontrol sakona pasatu du eta zeregin honetarako trebatua eta gaituk dago. Nazioarteko osasun eta portaera baldintza guztiak betetzen ditu.

Halaber, Seguros Bilbao eta Sabadell Aseguradora S.A.-rekin, A.V.E.P.A.k (Asociación de Veterinarios Españoles de Pequeños Animales), izenpetua, segurua dauka txakurrak.

Jabearen erantzukizun zibilaren bermea, txakur aseguratuak besteei (pertsona, animali edo gauzei) egindako gorputzaren lesioak eta kalte materialak aseguratzeko dituzte. Jabearen eta noiz behinkako jabearen erantzukizun zibila estalita dago.

### LAUANKA:

ASOCIACION DE TERAPIA ASISTIDA CON ANIMALES / ANIMALIEN BITARTEZKO TERAPIA ELKARTEA

[www.lauanka.org](http://www.lauanka.org) y en Facebook-en ere

[info@lauanka.org](mailto:info@lauanka.org)

687 967 732

## Z E R D A A N I M A L I E N B I T A R T E Z K O T E R A P I A ?

Pertsonen ongizatea hobetzeko asmoz, esku-hartze terapeutikoetan animalien parte-hartzean datza Animalien Bitartezko Terapia (ABT).

### Onurak:

- Fisikoki: txakurrarekin egindako ariketen bidez giharretako tonuaren igoera eta presio arterialaren hobekuntza lortzen da. Trebetasun motore mehe eta lodien hobekuntza ere.
- Psikologikoki eta emozionaliki: antsietatea eta estresa gutxitu, tentua, motibazioa eta autoestimua hobetu. Emozioen adierazpena erraztu.
- Gizarte harremanetan: txakurra beste pertsonetikiko komunikazio tresna bihurtzen da eta elkarrizketa eragiten du. Animaliak efektu sozializatzailea du.
- Kognitiboki: memoria, arrazoitzea eta orientazioaren hobekuntza.

Terapia txakurra hezkuntza edo terapia programa batean parte hartzeko espezifikoki trebatua dagoen animalia da, profesionalaren erreminta bezala erabiliz; bere funtzioa estimulu egokia ematea da, helburu terapeutikoak hobe, arinago eta erabateko moduan lortuz.

Txakurraren bezaketa garatuak ariketa konplexuak egitea eta pertsonaren atentzioa deitzea ahalbidetzen du, bere kontzentrazioa eta esperientzia horrekiko jarrera positiboa mantenduz.

Txakurra errespetatuz lan egiten dugu beti eta horretarako bezaketa positiboan oinarritzen gara, animaliarekin errefortzu positiboaren bitartez erlazionatuz, zigorra erabili gabe.

## ¿ Q U É E S L A T E R A P I A A S I S T I D A C O N A N I M A L E S ?

La Terapia Asistida con Animales (TAA) consiste en intervenciones terapéuticas con el fin de propiciar o promover la salud y el bienestar humano a través de la participación de animales.

### Beneficios:

- A nivel físico: aumento del tono muscular y mejora de la presión arterial gracias a los ejercicios realizados con el perro. Mejora de las habilidades motoras fina y gruesa.
- A nivel psicológico y emocional: disminuye la ansiedad y el estrés, mejorando el estado de ánimo, la motivación, el entusiasmo y la autoestima. Facilita la libre expresión de emociones.
- A nivel social: el perro se convierte en un vehículo de comunicación con otras personas y estimula el diálogo. El animal tiene un efecto socializador.
- A nivel cognitivo: mejora en la memoria, razonamiento y en la orientación.

Con el fin de proporcionar el necesario estímulo que permita alcanzar los objetivos terapéuticos mejor y más rápido, el perro de terapia es un animal específicamente entrenado para integrarse dentro de un programa terapéutico o educativo como una herramienta al servicio de la persona profesional.

El adiestramiento avanzado del perro permite efectuar ejercicios complejos y captar de manera notable la atención de la persona usuaria, manteniendo su concentración y su actitud positiva hacia esa experiencia.

Trabajamos siempre respetando al perro y para ello nos basamos en el adiestramiento en positivo, método que consiste en interactuar con el animal a través del refuerzo positivo, sin utilizar en ningún momento el castigo.

## 5. eranskina: GURASOEN BAIMENAK



**Los días seis y ocho de Mayo de 2014, contaremos con la colaboración del equipo de trabajo de la asociación de terapia asistida con animales LAUANKA en el aula de dos años de la Ikastola de Deusto. Tendremos la visita de la trabajadora social y técnico en terapia asistida con animales y adiestramiento. Con ella también tendremos la posibilidad de recibir a Baloo; un perro de terapia asistida de la raza Golden Retriever. El 6 de Mayo contaremos con su colaboración en el aula de Iban y el 8 de Mayo en la de Mikel.**

Para poder llevar a cabo este proyecto que creemos puede ser muy enriquecedor para vuestros/as hijos/as, os solicitamos la siguiente información:

- |                                          | <b>Si</b>                | <b>No</b>                |
|------------------------------------------|--------------------------|--------------------------|
| • <b>Alergia a los perros</b>            | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <b>Consentimiento de participación</b> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |

La asociación LAUANKA nació en Bizkaia en el año 2009 para ayudar a personas de una manera diferente, es decir, a través de la terapia asistida con animales.

Baloo están entrenado en obediencia básica y como perro de terapia por Juan Jiménez Oyonarte de la Asociación Un Perro Andaluz y por la asociación LAUANKA.

Los perros de LAUANKA han pasado un exhaustivo control veterinario y están entrenados y capacitados para esta labor cumpliendo todos los requisitos tanto sanitarios como de comportamiento que regulan los organismos internacionales.

Están en constante vigilancia de un profesional y sometidos a revisiones veterinarias.

Así mismo, poseen un seguro contratado con Sabadell Aseguradora S.A. suscrita por A.V.E.P.A. (Asociación de Veterinarios Españoles de Pequeños Animales) y con Seguros Bilbao. La garantía de responsabilidad civil de la persona propietaria del perro cubre las lesiones corporales y/o daños materiales (a personas, animales o cosas) causados a terceros por el perro objeto del seguro. Está cubierta tanto la responsabilidad civil de la persona propietaria como la de su poseedor ocasional.

### **LAUANKA:**

ASOCIACION DE TERAPIA ASISTIDA CON ANIMALES / ANIMALIEN BITARTEZKO TERAPIA ELKARTEA

[www.lauanka.org](http://www.lauanka.org) y en Facebook-en ere

[info@lauanka.org](mailto:info@lauanka.org)

687 867 722



**2014.eko Maiatzak 6 eta 8an LAUANKA-ko (Animalien bitartezko terapia elkarte) lan-taldearen kolaborazioa izango dugu Deustuko Ikastolako Haur Hezkuntzako 2 urteko gelan. Egun horietan LAUANKA-ko gizarte laguntzailea, eta bezaketa eta animalien bitartezko terapia teknikaria izango dugu gurekin. Berarekin Baloo etorriko da; Golden Retriever arrazako terapia txakur bat. Maiatzak 6an Ibanen gelan izango dugu esperientzia hau eta Maiatzak 8an Mikelen gelan.**

Hain aberasgarria iruditzen zaigun esperientzia hau aurrera eraman ahal izateko, zuen baimenak eskatu nahi dizkizuegu:

- 
- 

**baimena**

**Bai Ez**

**Txakur-alergia**

**Parte-hartze**

Animalien bitartezko terapien bidez jendea laguntzea posiblea zela pentsatzen zuten pertsona batzuen esfortzu eta ilusioari esker, jaio zen LAUANKA Elkarte 2009. urtean, Bizkaian.

Baloo "Un Perro Andaluz" Elkarteko Juan Jiménez Oyonartek eta LAUANKA Elkarreak trebatu dituzte oinarrizko obediencia eta terapia txakur bezala. Juan fisioterapeuta, zaldiketa terapeutikoan aditua, zereginetako terapeuta, laguntza txakurren bezatzailea eta Animalien Bitartezko Terapietan esperientzia handia dauka.

Balook albaitarien kontrol sakona pasatu du eta zeregin honetarako trebatua eta gaituk dago. Nazioarteko osasun eta portaera baldintza guztiak betetzen ditu.

Halaber, Seguros Bilbao eta Sabadell Aseguradora S.A.-rekin, A.V.E.P.A.k (Asociación de Veterinarios Españoles de Pequeños Animales), izenpetua, segurua dauka txakurak.

Jabearen erantzukizun zibilarren bermea, txakur aseguruak besteei (pertsona, animalia edo gauzei) egindako gorputzaren lesioak eta kalte materialak aseguratzeko. Jabearen eta noiz behinkako jabearen erantzukizun zibila estalita dago.

### **LAUANKA:**

ASOCIACION DE TERAPIA ASISTIDA CON ANIMALES / ANIMALIEN BITARTEZKO TERAPIA ELKARTEA

[www.lauanka.org](http://www.lauanka.org) y en Facebook-en ere

[info@lauanka.org](mailto:info@lauanka.org)

## Z E R D A A N I M A L I E N B I T A R T E Z K O T E R A P I A ?

## Z E R D A A N I M A L I E N B I T A R T E Z K O T E R A P I A ?

Pertsonen ongizatea hobetzeko asmoz, esku-hartze terapeutikoetan animalien parte-hartzean datza Animalien Bitartezko Terapia (ABT).

### Onurak:

- Fisikoki: txakurrarekin egindako ariketen bidez giharretako tonuaren igoera eta presio arterialaren hobekuntza lortzen da. Trebetasun motore mehe eta lodien hobekuntza ere.
- Psikologikoki eta emozionalki: antsietatea eta estresa gutxitu, tentua, motibazioa eta autoestimua hobetu. Emozioen adierazpena erraztu.
- Gizarte harremanetan: txakurra beste pertsonetikiko komunikazio tresna bihurtzen da eta elkarrizketa eragiten du. Animaliak efektu sozializatzailea du.
- Kognitiboki: memoria, arrazoitzea eta orientazioaren hobekuntza.

Terapia txakurra hezkuntza edo terapia programa batean parte hartzeko espezifikoki trebatua dagoen animalia da, profesionalaren erreminta bezala erabiliz; bere funtzioa estimulu egokia ematea da, helburu terapeutikoak hobe, arinago eta erabateko moduan lortuz.

Txakurraren bezaketa garatuak ariketa konplexuak egitea eta pertsonaren atentzioa deitzea ahalbidetzen du, bere kontzentrazioa eta esperientzia horrekiko jarrera positiboa mantenduz.

Txakurra errespetatuz lan egiten dugu beti eta horretarako bezaketa positiboan oinarritzen gara, animaliarekin errefortzu positiboaren bitartez erlazionatuz, zigorra erabili gabe.

## ¿ Q U E E S L A T E R A P I A A S I S T I D A C O N A N I M A L E S ?

La Terapia Asistida con Animales (TAA) consiste en intervenciones terapéuticas con el fin de propiciar o promover la salud y el bienestar humano a través de la participación de animales.

### Beneficios:

- A nivel físico: aumento del tono muscular y mejora de la presión arterial gracias a los ejercicios realizados con el perro. Mejora de las habilidades motoras fina y gruesa.
- A nivel psicológico y emocional: disminuye la ansiedad y el estrés, mejorando el estado de ánimo, la motivación, el entusiasmo y la autoestima. Facilita la libre expresión de emociones.
- A nivel social: el perro se convierte en un vehículo de comunicación con otras personas y estimula el diálogo. El animal tiene un efecto socializador.
- A nivel cognitivo: mejora en la memoria, razonamiento y en la orientación.


Con el fin de proporcionar el necesario estímulo que permita alcanzar los objetivos terapéuticos mejor y más rápido, el perro de terapia es un animal específicamente entrenado para integrarse dentro de un programa terapéutico o educativo como una herramienta al servicio de la persona profesional.

El adiestramiento avanzado del perro permite efectuar ejercicios complejos y captar de manera notable la atención de la persona usuaria, manteniendo su concentración y su actitud positiva hacia esa experiencia.

Trabajamos siempre respetando al perro y para ello nos basamos en el adiestramiento en positivo, método que consiste en interactuar con el animal a través del refuerzo positivo, sin utilizar en ningún momento el castigo.

## 6. eranskina: IPUINA

	<h3 style="text-align: center; background-color: black; color: white; padding: 5px;">BALOO EZAGUTZEN</h3> <p>Baloo txakur txuri bat da.</p> <p>6 urte ditu eta oso txakur berezia da.</p> <p>Nahiko txakur handia da eta kolore zuriko ilea dauka.</p> <p>Baloo oso txakur ona da; zintzoa, maitekorra eta alaia.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eta badakizue zer?</li> </ul> <p style="text-align: right;">Baloo oooooo txakur lasaia da.</p>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badakizue bihar nor etorriko den ikastolara zuekin egotera?</li> <li>- Bai! Baloo etorriko da!</li> </ul> <p>Baloo ikastolara etorriko da umeekin egotea asko gustatzen zaiolako.</p> <p>Umeak asko maite dute Baloo eta Balook asko maite ditu umeak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Jakin nahi duzue Baloori zer gustatzen zaion?</i></li> </ul>
	<p>Esan dudan bezala, Baloori umeekin egotea asko gustatzen zaio.</p> <p>Umeekin lasai-lasai egotea asko gustatzen zaio.</p> <p>Balook oso gustuko du ere umeekin jolastea; alfonbraren gainean etzanda, laztanak ematen....</p> <p style="text-align: center;">Zein pozik egoten den Baloo umeekin dagoenean!</p>







**Baloori gehien gustatzen zaion gauzetariko bat, maitasunez zaintzea da.**

**Asko gustatzen zaio alfonbraren gainean etzatea eta maitasun eta lasaitasunez laztantzea eta besarkatzea.**

**Balook laztanak jasotzen dituenan lasaitu egiten da eta oso pozik jartzen da. Gustura dago Baloo laztantzen dugunean...**

- **Eta badakizue zer gehiago gustatzen zaion Baloori?**



**Baloori hondartzara joatea asko gustatzen zaio!!!**

**Poz pozik egoten da Baloo itsasoan olatuekin jolasten!!**



**Elurretara joatea ere Baloori izugarri gustatzen zaio.**

**Menditik korrika egitea asko gustatzen zaio eta elurrarekin jolasten duenean ere poz-pozik ipintzen da.**



**Umekin egotea asko gustatzen zaio. Baina umeez aparte, beste animalia batzuekin egotea ere asko gustatzen zaio Baloori.**

**Lo kuluxkak katuaeren ondoan botatzen dituenean oso amets politak izaten ditu Balook.**



**Batzuetan Baloo Ikastoletara joaten da.**

**Normalean, umeak korro batean jesartzen dira eta horrela Baloo ezagutzen dute.**

**Guk Baloo aurkezten dugu eta Baloori gustatzen zaizkion gauzak umeei azaltzen dizkiegu; janaria ematea, ilea orraztea, berarekin alfonbran deskantsatzea, bere bihotza entzutea, besarkatzea....**




**Balook bolita txiki marroi batzuk jaten ditu.**

**Nahi duen umeak, janaria eman diezaioke.**

**Baloori jatea pilo gustatzen zaio!!**

	<p><b>Beste ume batzuek, aldiz, Balooren ile zuri eta leuna orraztea nahiago dute.</b></p> <p><b>Orrazten dugunean, Baloo lasaitu egiten da eta poz-pezik ipintzen da.</b></p>
	<p><b>Nahi duenak ere Baloori muxuak eman ahal dizkio,</b></p> <p><b>Baloori mimoak asko gustatzen baitzaizkio.</b></p>
	<p><b>Neska eta mutil batzuei Baloorekin alfonbran etzatea gustatzen zaie eta Baloo lasai-lasai egoten da egoera horietan.</b></p>
	<p><b>Ze pozik egoten den Baloo umeek besarkatzen dutenean!!!</b></p>
	<p><b>Eta orain... ia nork asmatzen duen zeintzuk diren Balooren oinak?</b></p>



**Zergatik dakizue horiek Balooren oinak direla?**



**Laster arte Baloo!**

**7. eranskina:**

**IPUINAREN KONTAKIZUNA (Mikelen gelan)**



**IPUINAREN KONTAKIZUNA (Ibanen gelan)**



## 8. eranskina: BALOOREN MARRAZKIAK MARGOTZEN



<sup>4</sup> Baloo bi “o”-rekin idazten den arren, umeei BALU izena erakutsi behar niela argi ikusi nuen, beraien irakurmen eta idazmen prozesua ez gatazkatzearren. Soinu eta idazkeraren arteko lotura mantendu nahi nuen irakurmena eta idazkeraren lehen prozesu honetan.

## 9. eranskina: GELA BALOOREKIN APAINTZEN







## 10. eranskina: ONGI ETORRIA EMATEN



**11. eranskina: Balooren zaintzak. ELIKATZEN**




**12. eranskina: Balooren zaintzak. ORRAZKETA**





**13. eranskina: DOAKO GOXOTASUNA**





**14. eranskina: UKIPENA, KONFIANTZA, ZIURTASUNA**





**15. eranskina: BELDURRAK GAINDITZEN (sekuentzia fotografikoa)**









**16. eranskina: ADISKIDETASUNAREN KONPLIZITATEA**

**17. eranskina: PUZZLEA**


**18. eranskina: BAT GARA**

5

---

<sup>5</sup> Baloo eta Martin





**19. eranskina: MAITASUNA**



Esperientzia hau bukatzean sentitzen dudan beharra eskerrak ematea da.

ESKERRIK ASKO:

- Bi urteko umeei. Hainbeste irakasteagatik, maitasunagatik, besarkadengatik, entregatzeagatik, muxuengatik, nire begiak eta bihotza irekitzeagatik.
- Baloori. Zure baldintzarik gabeko presentziagatik, pazientzia infinituagatik, ontasun liluragarriagatik, onarpen totalagatik, emankortasunagatik, leinargitasunagatik, maitasunagatik...
- Iban eta Mikeli nire Proiektu Berritzaile honetan sinesteagatik.
- Gurasoei eta Ikastolako zuzendaritza taldeari esperientzia hau ahalbidetzeagatik.
- LAUANKA elkarteari egindako opari handi honengatik eta bereziki Nagoreri zure laguntza, euskarri eta eskuzabaltasunagatik.
- Laura del Castillori, nire bizitzako prozesu pertsonal honetan nigan konfiantza izateagatik eta nik behar izan dudan askatasun osoz lan egitea ahalbidetzeagatik.